

HITZALDIAK EITBn EKAINAREN 4 eta 8an

BETETZEN AL DU EITBk BERE ZEREGIN INFORMATIBOA ZERBITZU PUBLIKO MODUAN?



2010ean IPAR-HEGOA Fundazioak eta BAIETZ Fundazioak azterketa lan bat eskatu zioten Aztiker soziologia kabineteari. Lana hiru txostenetan gauzatu zen, eta bakoitzatik bosna ondorio atera zituen LAB sindikatuak: Lurraldetasunaren trataera; Generoaren trataera; eta Sozioekonomiaren trataera. Aztikerren lana 2010eko udazkenean burutu zen. EITBko albistegien azterketa izan zen lanaren helburua, eta gure ustez, EITBk bere informazio politikan nondik nora jotzen duen argi islatzen du lan honek.

Dena den, kontrola eta zentsura ez dira zoritxarrez gauza berriak txoriaren habian, Ajuria Eneako itunaren garaia gogoratzea besterik ez dago. Erredakzioetan ordenagailuen aroa heldu aurretik ere, "DOC" dokumentuak baziren, "De obligado cumplimiento" esan nahi zuen. Zentsura eta autozentsura ziren EITBko zuzendaritzak erabiltzen zituen tresnak ematen zen informazioa kontrolatzeko. Behin behineko kontratazioak erraztu egiten zuen zuzendaritzaren kontrol lana, giroa itogarri bihurtuz erabilera maltzur horren kontra zeuden langileentzat.

Gaur egun agintean den zuzendaritzak, Suriorenak, zentsura zuzena ezartzen saiatu izan da, aurrekoen zeharkako bideak alde batera utzi eta agintekeria erabiliz. Egia da Erredakzioko Estatutua negoziatzeko borondatea erakutsi duela Suriok, aurreko zuzendaritzen politika aldatuz, baina azken pausua ematea falta zaio, indarrean jartzea Erredakzio estatutu hori.

Oso modu grafikoan ikusi ahal izan genuen PSE-PPren zuzendaritza berriaren lur-hartzea EITBn: eguraldiaren mapa;

Iparralderako albistegiak kentzeko saiakera; tertulietatik politikoki deserosoak diren gonbidatuak kentzen; jendartearen zati bat baztertzeko legeen aitzakiak jarriz (hau ere ez da berria)... EAEko gobernuko alderdiek lurraldeko komunikabide publikoak euren mezua hedatzeko erabili nahi izan dute, eta datuek frogatzen dute doktrinamendu ahaleginak kale egin diela; euskal gizarteak ez du saldu nahi dieten errealitate birtuala (PP eta PSOEek eskaintzen dutena) erosi nahi. Tranpa eginez heldu ziren agintera, baina euskal gizarteak badaki erregea biluzik dagoela.

Ez da harritzekoa Jaurlaritzaren ikus-entzunezko komunikabide publikoan halakoak gertatzea, hots, EITB beti agintean dauden alderdien esanetara egotea hainbat arrazoi dela medio. Jendartearen kontroletik errazago ihes egiteko, EAEn ez dago ikus-entzunezko kontseilurik eratuta. Hiru lurraldetako parlamentuaren eta jaurlaritzaren menpean daude EITBko sozietate anonimoak; Parlamentu mugatu -eta ez legitimoak- horrek badu kontrol eta jarraipen politikorako aukera Jarraipen Batzordean; Kontrol politikoa berez ez du zertan txarra izan behar benetako demokrazia batean, baina kontua da, Administrazio Kontseiluko hogeiki kideetik hamaseik perfil politikoa dutela, parlamentuko alderdi bakoitzak bere kideak ezarrita. Sindikatuen ordezkari bakarra EITBn ordezkartza txikien duen sindikatukoa da, eta aurreko legegintzaldian EITBn ordezkariak ere ez zuten sindikatukoa.

Ondorio hauek azaltzeko, konpartitzeko eta eztabaidatzeko bi hitzaldi deitu ditu LABek datozen ekainaren 4an eta 8an EITBn. UEUko udako ikastaroetan ere gaia landuko da. LABek gonbidapena luzatzen dizu bi hitzordu horietarako. Edorta Arana, lana zuzendu duen EHUko irakasleak eta Arkaitz Mtz. De Albeniz, Aztikerreko soziologoak hartuko dute parte eta zalantza metodologiko eta kazetaritzakoak argitzen saiatuko dira. Zure iritzia ere garrantzitsua izango da.



Ekainaren 4an, 15:30etan Bilboko Iurreta gelan
Ekainaren 8an, 15:30etan Miramongo Mikel Laboa gelan